




SENTIMENDU EKONOMIKOA

Europako sentimendu ekonomikoak okerrera egin zuen urtearen amaieran

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROGUNEA

2024KO ABENDUA
93,7


Abenduan, Europako Batzordeak argitaratzen duen sentimendu ekonomikoak nabarmen egin zuen okerrera bai eurogunean, bai Europar Batasunean. Hala, lehenengo kasuan, indizea 93,7ra jaitsi zen, aurreko bi hilekoetako datuak baino ia bi puntu beherago; bigarrenen, berriz, 94,5eko balioa erregistratu zen, hori ere 100 balioa duen batez besteko historikoaren oso azpitik.




Osagaien azterketak adierazten du industrian ezkortasun handia dagoela gaur egun, bere batez besteko balioa baino hamar bat puntu beherago baitago. Bestalde, zerbitzuak batez bestekotik gertu zeuden, eta eraikuntzak eta txikizkako merkataritzak nolabaiteko baikortasuna erakusten dute. Azkenik, ziurgabetasunaren adierazleak okerrera egin zuen zertxobait 2024ko azken hilabetean.

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROPAR BATASUNA

2024KO ABENDUA
94,5




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA



Herrialdeka aztertuta, portaera diferentziala hautematen da euroaren eremuko bi ekonomia nagusien eta pisu handiena duten hurrengo bi-en artean. Hala, Alemaniako indizeak okerrera egin du nabarmen 2023ko erdialdetik, 86,1era iritsi arte, industria batez besteko erregistrotik hogeita bost puntu beherago baitago, eta gainerako sektoreek ezin dute emaitza txar hori konpentsatu. Bestalde, Frantziak hiru puntu galdu zituen abenduan eta 93,4an kokatu zen, industria eta eraikuntza bere batez besteko balioetatik oso urrun zeudela.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Beste muturrean Espainia dago, urriko zalantzak atzean utzi eta 102,9ra iritsi arte posizioak berreskuratu baititu, kasu honetan industriaren portaera nahiko positiboa eta eraikuntzan oso baikorra izanik. Horretaz gain, enpleguari buruzko igurikimenez onak izaten jarraitzen dute (105,5), eta ziurgabetasuna, apur bat igo bada ere, ohiko balioen azpitik dago. Italiak ere herrialde nagusiek baino irudi hobea eskaintzen du, baina ez du tonu pixka bat negatiboa saihestu oraindik (98,2).

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



Iturria: Europar Batzordea.